

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

275/2025 Foru Agindua, abuztuaren 12koa. Onespena ematea “*Erwinia amylovora*” bakterioak (su gorrina) infestatutako zonaren deklarazioari eta Arabako Lurralde Historikoan tanpoi zona bat ezartzeari

Su gorrina landareen gaixotasun larria da, “*Erwinia amylovora*” bakterioak sortua, eta batez ere arrosazeoen familiako landareei eragiten die. Ezartzen denean, galera ekonomiko handiak eragiten ditu pipitadunen fruta arbolen ustiatagietan, oro har, eta sagarrondo eta udareondoetan, bereziki, bai eta familia horretako landare apaingarrien sektorean ere [*Chaenomeles* Lindl., *Cotoneaster* Ehrh., *Crataegus* L., *Cydonia* Mill., *Eriobotrya* Lindl., *Malus* Mill., *Mespilus* L., *Pyracantha* Roem., *Pyrus* L., *Sorbus* L., baina *Sorbus intermedia* (Ehrh.) Pers, eta *Stranvaesia* Lindl. Izan ezik].

Sortzen dituzten kalteen larritasuna areagotu egin daiteke barreiatzeko duten erraztasunagatik ugaltzeko landare materialaren bidez edo laborantza lanetan erabilitako ebaketa tresnen bidez; bektore naturalen bidez, hala nola intsektu polinizatzaileak, haizeak garraiatutako aerosolak (likidoa, euriak edo irrigazioek sortuak, eta solidoak, landare gaixoaren gainean lehortutako bakterio exudatuetatik datozenak); eta bakterioak landare organoen gainazalean gutxienez hogeita hamar egunez bizirik iraun dezakeelako eta landare ostalariaren barruan gutxienez urtebetez egon daitekeelako, ageriko sintomarik eragin gabe.

Erwinia amylovora Batzordearen 2019/2072 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren III. eranskinan (Eremu Babestuko Berrogeialdia) jasota dago, eta Araba bakterio horren zona babestuetako bat da.

Testuinguru horretan, 2021-2025 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landare Osasunaren Kontrol Ofizialerako Programaren esparruan, eta uztailaren 9ko 1201/1999 Errege Dekretuaren arabera (arrosazeoen su gorrina desagerrarazteko eta kontrolatzeko programa nazionala ezartzen duena), Mendi Zerbitzuak sare iraunkor bat definitu du, *Erwinia amylovora* bakterioaren landare ostalariak ikuskatzeko.

2025eko ekainaren 18an, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuko teknikariek ikuskapen horietako bat egin zuten Arabako Lurralde Historikoko Bastida udalerriko landare ostalarietan.

Bakterioa izan zezaketen hainbat landare espezieren lagin sintomatikoak hartu ziren, eta horietako bat positiboa izan zen *Erwinia amylovora* bakterioan, zehazki, *Pyracantha* ale bati zegokiona. 2025eko uztailaren 2an, Neikeren landare analitiken laborategiak emaitza positiboa eman zuen, eta erreferentziazko laborategi nazionalak 2025 uztailaren 8an berretsi zuen.

2025 uztailaren 11n, berriz joan zen zona horretara, bakterioak inguruan dituen espezie ostalarien banaketa aztertzeko, eta lagin berriak hartzeko, fokua irismena mugatzeko eta hartu beharreko neurri posibleak baloratzeko. Bigarren bisita horretan hartutako lagin guztiak negatiboak dira bakterioan, beste *Pyracantha* ale bati dagokiona izan ezik (emaitza positiboa izan zen 2025 uztailaren 17an, Neikereko landare analitiken laborategiaren aldetik).

Datuak aztertu eta *Pyracantha* ale positiboekin batera aurkitutako ostalarien laginak negatiboak izan direla ikusi ondoren, fokua jatorria zona horretan finkatu diren *Pyracantha* espeziearen landareak direla uste da.

Hori dela eta, bakterioa lehen aldiz detektatu zen puntuaren inguruko espezie ostalariei aplikatutako neurriak bakterioa desagerrarazteko inguruko *Pyracantha* espezieetara hedatuko dira, gehienak bakterioan positibo eman zuen lehen alearen ingurukoak. Desagerrarazteko neurri horiek 2025eko uztailaren 18ko goizean hartu ziren.

Infestatutako zonatzat hartu da inguru horretako *Pyracantha* aleen hedapen zona osoa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/2031 (EB) Erregelamenduan eta arrosazeeen su gorrina desagerrarazteko eta kontrolatzeko programa nazionala ezartzen duen uztailaren 9ko 1201/1999 Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan hartu da.

Nahitaezko txostenak ikusita, eta Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiko sailak ezarri baitziren 2023-2027 legegintzaldirako (Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuari lotuta), hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Bastidako udalerrian "*Erwinia amylovora*" bakterioak (su gorrina) infestatutako 1,75 hektareako zona baten deklarazio ofiziala onestea.

Bigarrena. Detektatutako su gorrinaren hasierako fokuari inguruan kilometro bateko diametroko tanpoi zona bat ezartzea.

Hirugarrena. Mugatutako zonan (infestatutako zona eta tanpoi zona), jarraipen intentsiboa egingo da bi urtez jarraian, fokua desagerrarazi dela pentsatu aurretik, eta 1201/1999 Errege Dekretuaren 6. artikuluan ezarritako neurriak aplikatuko dira, bereziki;

- Debekatuta dago landare edo landare zati ostalarien garraioa segurtasun zonatik kanpo, polinizaziorako polen aktiboa barne, fruituak eta haziak izan ezik, autonomia erkidegoaren berariazko baimenik gabe.

- Gaixotasunaren ostalari izan daitezkeen landareak landatzeko edo birlandatzeko debekua, segurtasun zona indarrean dagoen bitartean autonomia erkidegoaren berariazko baimenik gabe.

- Inausteko trenak desinfektatzeko betebeharra ale bakoitzean eragiketa egin ondoren.

Laugarrena. Foru agindu honek onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Bosgarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, Nekazaritzako foru diputatuaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak bere 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 123. artikuluan ezarritakoari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 12a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA



ERANSKINA

Infestatutako zonaren eta tanpoi zonaren xehetasuna



Horiz agertzen da infestatutako zona, eta lerro berdeak Arabako Lurralde Historikoko tanpoi zona mugatzen du.